



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Prensa-oharra

Bagilak 29. Batzar Nagusietako Kultura eta Euskera Batzordea

Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Arte Ederren Museoagaz egindako hitzarmena, datozen 6 urteotan artelanak erostearen gainekoa

Bilbon, 2012ko bagilaren 29an. Gaur, Kultura eta Euskera Batzordean, Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi egin dabe Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena, 2018. urtera arte artelanak erosteko finantziarazino partzialerako. Aitaturako hitzarmen horren bitartez, aldeetako bakotzak konpromisoa hartzen dau urtean 100.000 euroko diru-laguntzea ordaintzeko museoaren Fundazioari, erosketa barrietarako. Hitzarmena Josune Ariztondo Kulturako foru diputaduak aurkeztu dau, eta ganberako talde guztien aldeko botoa jaso dau, Bildurena izan ezik, abstenidu egin da eta.

Beste alde batetik, Batzordeak Batzarretako taldeek aurkeztutako arauz besteko proposamenen gainean eztabaidatu dau. Lehenengo laurak, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutakoak, aho batez onartu dira. Horren bitartez, Zugaztietako Meatzarien Ospitalearen lehengo eraikina berreskuratzearen eta eraikin hori Interpretazino eta Kultura Zentro bihurtzearen gaineko hasierako eretxia emon dau Ganbereak. Popularrek Euzko Abertzaleak Taldearen zuzenketak onartu dabez, ekintza hau ez daiten “datozen urteetan” egin; izan be –euren arabera–, “apenas geratzen da eraikinaren aztarna materialik eta emoten dau ez dala une egokiena inbersino handia egiteko”.

Beste ekimen parlamentario baten bitartez, eta barriro be Euzko Abertzaleak Taldearen zuzenketak jaso ostean, popularrek ekimen bat atera dabe aurrera; horren bitartez, Aldundiko Kultura Sailari Elorrioko monumentu moltsoko eraikin eta jauregietako atzeko lorategiak eta espazio libreak babesteko balioko dauen txosten teknikoa eskatu deutse; izan be, momentu honetan, elementu horreek Eusko Jaurlaritzaren 90/198 dekretuaren babesetik kanpora geratzen dira.

Zentzu horretan, popularrek Ganberearen babes osoa jaso dabe, Aldundiari eskatzeko Getxoko Udalgaz jardun daian, Galeako itsasargiak eta gotorlekuak osotzen daberen ingurua “zaindu, artatu eta eraginkortasunez babesteko”, eta Punta Begoñako Harresiak “hobetu, egokitu eta iraunazoteko”. Getxoko kirol portuaren aurrean dagozan Galeriei jagokenez, Bildu Taldeak bere proposamen propioa aurkeztu dau, espazio hori “publikoa eta irekia” izan daiten eta bere erabilerei buruzko eztabaidarako prozesu parte-hartzailea ireki daiten. Euskal Sozialisten Taldeak dino prozesu hori ez litzatekeela “erabakigarria” izan behar, “aholkularia” baino, eurek aurkeztutako



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

zuzenketa-eskeak adierazoten dauan lez. Bilduren ekimenak be aurrera egin dau, sozialisten zuzenketa jaso eta popularren babesa euki ostean; aldiz, Euzko Abertzaleak Taldeak kontrako botoa emon dau. Arauz besteko beste proposamen baten bitartez, talde guztiek erabagi dabe Larreinetako funikularra babestea, “industria eta kultura ondare” izendatu daiten.

Nafarroako konkistaren V. mendeurrena dala-eta, Bildu Taldeak aurkeztutako beste ekimen bat jorratu da Kultura eta Euskera Batzorde honetan. Koalizino abertzaleak eskatu eban Aldundiak "euskaldunok Nafarroako erreinuan izandako estadu bakarra" oroitu eta ezagutzera emoteko zabalkunde ekintzak egin daizala. Proposamena atzera bota da, gainerako taldeen ukoagaz.

Era berean, Bilduk laguntza eskatu eutsen Batzar Nagusiei, Bizkaiko Foru Aldundiari eska dagion Bizkaian dagozan ermita guztien gaineko dokumentazinoa aztertzeke. Horren bitartez, jakin gura eben ermitok udal jabetzakoak diran edo, aitzitik, Elizak edo partikularrek “usurpau” dabezan. Azkenean, Bilduk proposamena baztertu dau, popularrek eta abertzaleek proposamenaren terminoak aldatzeke egindako gomendioak onartzerakoan; izan be, Aldundia ez da nor titulartasuna ikertzeke, “udalen ekimen-esparrua” dalako, Euzko Abertzaleak taldeko ahalduna dan Jon Sánchezen arabera.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

Nota de prensa

29 de junio. Comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales

Las Juntas Generales ratifican el convenio con el Bellas Artes para la adquisición de obras de arte durante los próximos 6 años

Bilbao a 29 de junio de 2012. Las Juntas Generales de Bizkaia han ratificado hoy, en la Comisión de Cultura y Euskera, el Convenio de colaboración firmado entre la Fundación del Museo de Bellas Artes de Bilbao, y el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao, para la financiación parcial de compra de obras de arte hasta el año 2018. A través del citado convenio, cada una de las partes se compromete a abonar a la Fundación una subvención de 100.000 euros anuales para nuevas adquisiciones. El convenio, presentado por la Diputada Foral de Cultura, Josune Ariztondo, ha recibido el voto favorable de todos los grupos de la cámara, excepto de Bildu que ha decidido abstenerse.

Por otro lado, la Comisión ha debatido siete proposiciones no de norma presentadas por los grupos junteros. Las cuatro primeras, presentadas por el Grupo Popular Vizcaíno, han sido aprobadas por unanimidad. A través de ellas, la Cámara ha tomado partido inicialmente sobre la realización de un estudio para la recuperación del antiguo edificio del Hospital Minero de La Arboleda y su destino como Centro Cultural y de interpretación. Los populares han aceptado las enmiendas del Grupo Nacionalistas Vascos para que esta actuación no se realice “en los próximos años”, ya que –según ellos- “apenas quedan vestigios materiales del edificio y tampoco parece que sea un buen momento para acometer una fuerte inversión”.

A través de otra iniciativa parlamentaria, los populares han sacado adelante una iniciativa, después de recoger nuevamente las enmiendas de los Nacionalistas Vascos, para solicitar al departamento de Cultura de la Diputación un informe técnico que permita proteger los espacios libres y jardines traseros de edificios y palacios del conjunto monumental de Elorrio que, en estos momentos, quedan fuera de protección en el decreto 90/198 del Gobierno Vasco.

En esta misma línea, los populares han recibido el apoyo unánime de la Cámara para instar a la Diputación a que colabore con el Ayuntamiento de Getxo para lograr el “adecentamiento, conservación y protección eficaz” del conjunto formado por el faro y el fuerte de La Galea, y para impulsar la “mejora, adecuación y conservación” de las Murallas de Punta Begoña. En relación a estas galerías, situadas frente al puerto deportivo de Getxo, el Grupo Bildu ha presentado su propia propuesta para que este



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

espacio sea “público y abierto”, y se abra un proceso participativo de debate en torno a sus usos, que no debería ser “decisorio”, según el Grupo Socialistas Vascos, sino “consultivo”, como dice la enmienda presentada por estos últimos. La iniciativa de Bildu ha salido adelante también después de recoger la enmienda socialista y recibir el apoyo de los populares, mientras el Grupo Nacionalistas Vascos ha votado en contra. A través de otra proposición no de norma, todos los grupos han decidido salvaguardar el funicular de Larreineta para que se declare “patrimonio industrial y cultural”.

Otra iniciativa del Grupo Bildu sobre el V Centenario de la conquista de Navarra ha formado parte de los temas a tratar en esta Comisión de Cultura y Euskera. La coalición abertzale pedía que la Diputación llevara a cabo acciones de difusión para recordar y dar a conocer el “único Estado que han tenido los vascos, el reino de Navarra”. La proposición ha sido desestimada por el rechazo del resto de grupos.

Asimismo, Bildu solicitaba el apoyo de las Juntas Generales para instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que investigue toda la documentación sobre las ermitas existentes en Bizkaia. Pretenden saber si las ermitas son de propiedad municipal o si, por el contrario, han sufrido un caso de “usurpación” por parte de la Iglesia o de particulares. Al final, Bildu ha retirado la propuesta al aceptar las recomendaciones de populares y nacionalistas para que se cambien algunos términos de la propuesta, en relación a que la Diputación no es quién para investigar la titularidad, ya que es un “ámbito de actuación de los ayuntamientos”, según Jon Sánchez, apoderado del grupo Nacionalistas Vascos.